

Guraso, ikasle, irakasle agurgarriok:

Ikasturtea amaitzear dago eta baita ikastolan martxan euki ditugun proiektu batzuk ere.

DBH2: Lagunarte Proiektuak **Bermeoko Kate Sarea** elkartarekin duen elkartasun programaren bitartez, ikasleek **elikagaiak** (esnea, olio, kakao-hautsa, azukrea...) batzeko kanpainia antolatuta dute.

DBH3: Hirugarren neurketa honetan Gizarte Zientzietako ikasgaien gizarte-partaidetza aktiboa eta ekintzailatasuna sustatzea dugu helburu. Nola? **Kongoko Errepublika Demokratikoan** meategietan lan egiten duten umeen egoeran eraginez. Horretarako, Alboan GKEak eta hainbat ikastolok elkarlanean dihardugu **apurtuta edo funtzionatzen ez duten sakeleko telefonoak** biltzen; bukaeran, eurok birziklatu eta lortutako dirua Alboanen bitartez bideratuko da.

DBH4: Aurton Bilboko **Zubietxe** elkarteari laguntzeko ekintza eta lan ugari burutu ditugu GES proiektuaren bitartez. Zubietxek, eskuartean dauzkan ekimenen artean, LIBU izeneko hautatu eta bertan laguntzeko konpromezua hartu dugu. Gure helburua ahalik eta **bigarren eskuko irakurketa-liburu** gehien lortzea da gero beraiek beharizana dutenei prezio merkean saltzeko. Honetaz gain, ikasleek **Urpekaritza Hastapenak** ikastaroa eskuratzeko **boletoak** ere salduko dituzte.

Idazkaritza aurrean sakeleko telefonoak, bigarren eskuko irakurketa-liburuak eta elikagaiak batzeko espazioak egokituko ditugu. Kanpaina maiatzaren 23tik ekainaren 10era arte zabalik egongo da.

Animatu eta lagun iezaguzue gure mundua hobeto bihurtzen. Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Proiektu solidarioak eta Agenda 21eko ikasleak

Bermeon, 2016ko maiatza